



EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNERAKO I. PLANA

LAUDIOKO UDALA
2006-2009

0. AURKIBIDEA

1.-Aurkezpena	3. o.
2.- Erakunde- eta lege-markoa	4. o.
3.- Marko Kontzeptuala	7. o.
4.- Berdintasun Planaren ezaugarriak	8. o.
5.- Jarduera Arloak eta Helburuak	9. o.



1. AURKEZPENA

Emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunaz hitz egiteak batzuek zein besteek gizarteari egiten dizkieten ekarpenak kontuan hartzea dakar berekin Ondasunak eta bitartekoak banatzea esan nahi du, eta bizitzako esparru guztiak partekatzea. Era berean, emakumeek erabaki politiko, finantzario, kultural eta sozialetan parte hartzea dakar, eta gizonak bizitza familiar eta afektiboan inplikatzea.

Zeregin garrantzitsu horretarako, nahitaezkoa da esparru politikotik emaitzen berdintasuna bultzatzea hainbat neurriren bidez, zuzeneko diskriminazioari (sexuagatiko tratamendu berezia eta kaltegarria) nahiz zeharkako diskriminazioari, hain agerikoa ez denari, aurre egiteko.

Azken bi hamarkadetan zehar, Administrazioek zenbait politika abiarazi dituzte, lege eta araudietan jasota dagoen berdintasuna aukera zein emaitza berdintasun egiazkoa eta eraginkorra bihur dadin.

Udalek inplikazio eta legitimazio berezia dute gai horretan; izan ere, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak ez ezik, Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an onetsitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ere eskumenak eman baitizkie alor horretan. Beraz, Udalen jarduteko zein esku hartzeko konpromiso eta aukerek garrantzi handia dute gizonen eta emakumeen Aukera Berdintasunerako Politika Publikoen barruan.

Ildo horretatik, Audioko Udalak udalerriko Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunari buruzko Diagnostikoa egin du 2006an, eta Plan hau prestatzeko erreferentzia gisa erabili.



2. - ERAKUNDE- ETA LEGE-MARKOIA

Europako Batasunaren esparruan hainbat araudi espezifiko, ekimen eta programa sortu dira, Estatu Kideen politiketan Aukera Berdintasuna bultzatzeko ildoak ezartzeko asmoz.

Legegintzari dagokionez, berdintasuna 70eko hamarkadan hasi zen sustatzen; lan munduarekin loturiko neurriak ezarri ziren, eta indarreko araudiaren alderdi diskriminatzaileak ezabatzeko legezko ekintzak abiarazi.

80ko hamarkadaren hasieran, Europako Parlamentuak hiru eztabaida antolatu zituen Europako emakumeen egoera dela eta. Eztabaida horien emaitza Ekintza Komunitarioko lehenengo Programa izan zen. Orduz geroztik bost Programa abiarazi dira; programek esku hartze neurriak jasotzen dituzte emakumeak enplegura, prestakuntzara, hezkuntzara, gizarte zerbitzuetara, kulturara eta oro har bizitza publikora iris daitezela. Egun, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako V. Ekintza Programa Komunitarioa 2001 – 2005 dago indarrean. Izan ere, programa hori luzatu egin da 1554/2005/EB Ebazpenaren bidez (255 L AO Aldizkari Ofiziala, 2005-9-30ekoa). Ebazpen horren 2. artikulua zera xedatzen du: 848/2004/EE ebazpena era honetara aldatu da: 1) "2005eko abenduaren 31" dataren ordez "2006ko abenduaren 31" jarri da.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 1988an EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea sortu zenetik, Ekintza Positiboko hiru Plan ezarri dira. Egun III. Plana dago indarrean, Eusko Jaurlaritzak 1999ko abenduaren 21ean onetsi zuena. Aipatu planak 1995eko irailean Pekinen egindako Emakumei buruzko Munduko IV. Biltzarreko Ekintza Plataformatik ondorioztatutako helburuak biltzen ditu, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako IV. Ekintza Programa Komunitarioko proposamenekin batera. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren 2. zirraborra entzunaldi publikoan dago une honetan. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana 2006ko irailaren 26an onetsi zuen Gobernu Kontseiluak.

Generoko Politika Publikoetako une gogoangarrietako bat Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen onespina izan zen. Eusko Legebiltzarrak onetsi zuen, eta Herri Administrazioak alor horretan egin beharreko ekintzak jaso ditu.



Aipatutako Legeak argi zehazten ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren arloan administrazio maila bakoitzari dagozkion eginkizunak, Autonomia Estatutuko 10.39 artikulutik, Lurralde Historikoen Legearen 6 eta 7 c) 2 artikuluetatik ondorioztatutako eskumenei jarraiki, eta Estatutuko eta Erkidegoko arauekin (hurrenez hurren, 9.2 art. eta Europar Batasunaren Ituneko 3.02 art.) bat etorritik. Arau horien arabera, botere publiko guztiek dute baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko betebeharra, emakumeen eta gizonen berdintasuna eraginkorra eta egiazkoa izan dadin; gainera, beren politika eta ekintza guztietan berdintasun hori bultzatzeko betebeharra dute.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak eginkizun hauek esleitzen dizkio Toki Administrazioari:

- a) Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea nahiz sortzea genero ikuspegia aintzatesteko.
- b) Ekintza positiboko neurriak ezartzea.
- c) Gobernuaren plangintza orokorraren eta Foru Aldundi bakoitzaren plangintzaren araberako programak diseinatzea.
- d) Estatistikak egokitzea eta eguneratzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoerak ezagutzeko eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriak zehazteko.
- e) tokian tokiko ikerketak egitea emakumeen eta gizonen egoerari buruz.
- f) Sentsibilizazio ekintzak egitea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriei buruz.
- g) Tokiko araudiaren eta haren ezarpenaren jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa kontuan izanik.
- h) Herritarrei, eta bereziki emakumeei, informazioa eta aholkua ematea; hala berdintasunarekin loturiko baliabide eta programei buruz, nola diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak bermatzera zuzendutako programa edo zerbitzuei buruzkoa.
- i) Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte eskubideak bermatzera zuzendutako programa edo zerbitzuak ematea, beren ezaugarriengatik udalerrian eman behar direnean.
- j) Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak eskaintzea, beren ezaugarriengatik udalerrian eskaini behar direnean.
- k) Harremanak eta partaidetza zein lankidetzarako bideak sortzea erakunde publiko eta pribatuekin, beren helburu edo eginkizunengatik toki mailan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen dutenean.
- l) Tokian-tokian gertatzen diren sexuagatiko diskriminazio egoerak antzematea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.
- m) Bere eskumenen barruan, esleitzen zaien beste edozein eginkizun.



Beren eginkizunak behar bezala betetzeko, toki administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren laguntza teknikoa izango dute, eta baita foru administrazioena ere.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Planean (2006 – 2009) neurri hau jaso du:

“Berdintasunarekin loturiko gaietan, Arabako Udalekin lankidetzan jarraitzea; bereziki, laguntza teknikoa eskainiz eta sustapen baldintzak finkatuz Planean jasotako ekintzak hobeto ezar daitezzen, eta oro har, berdintasuna lortzera zuzendutako plan eta jarduerak gara daitezzen.”

Bestalde, Udalak dira herritarren premia eta interesengandik hurbilen dauden erakundeak. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak argi zehazten ditu zein diren Udalen eskumenak, herritarren premiak asetzen laguntzen duten jarduerak sustatzeari eta zerbitzu publikoak emateari dagokionez.

Horregatik da hain garrantzitsua emakumeen eta gizonen desberdintasun egoerak zuzentzeko neurriak ezartzea eta bultzatzea. Eta *Aukera Berdintasunerako Planak* dira izan, Berdintasunaren aldeko politiken garapena ahalbidetzen duten tresnak.



3. MARKO KONTZEPTUALA

Aukera Berdintasunerako Plan hau egiterakoan honako hauek hartu dira erreferentziazat: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005 Legea), Europako V. Ekintza Programa Komunitarioaren gomendioak, eta “Europako Kontseiluko Mainstreaming-eko Aditu Taldeak” egindako azken txosteneko gomendioak, Aukera Berdintasunerako Politiken ezarpenari eta abiarazteari buruzkoak.

Esparru horren barruan, bi estrategia erabiltzen dira Aukera Berdintasunerako Politikak ezartzeko: Mainstreaming-a eta Ekintza Positiboa. Genero Zeharkakotasuna edo “Mainstreaming”a ezinbesteko estrategiazat hartzen da Politika horiek garatzeko. Lehen aipatu Aditu Taldeak honela deskribatzen du kontzeptua:

“Prozesu politikoak antolatzea (berrantolatzea), hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak ezartzeaz arduratu ohi diren eragileek genero berdintasunaren ikuspegia sar dezaten politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan”.

Beraz, mainstreaming-a Berdintasunarekin loturiko edozein ekintzaren ardatza izan behar da; horregatik, Planaren diseinuan estrategia hori ezartzeko mekanismoak sartu ditugu.

Horrekin batera, aurrekoa bezain tresna eraginkorra denez, Ekintza Positiboa ere sartu dugu Planean, Europako Batasuneko Ekintza Programei jarraiki. Ondorioz, Ekintza Positiboa Aukera Berdintasunerako “ohiko” politiken barruan kokatzen da (horien helburua genero desberdintasunak eragindako arazo zehatzak konpontzea da). Aukera Berdintasunerako Europar Batasuneko Aholku Lantaldearen arabera, Ekintza Positiboa zera izango litzateke:

“Ekintza programa baten itxura hartzen duen estrategia, zeinek, gertakarietan aukera berdintasuna ezartzeko asmoz, usantza sozialek eta gizarte sistemak eragindako diskriminazioak arintzeko edo zuzentzeko balio duten aldi baterako neurriak baitarabiltza”.

Bi strategiak Berdintasun Politiken elementu osagarri bihurtzen dira. Zeharkakotasunak aldaketarako ahalmen handia du, baina hori ezartzeko denbora behar da, egiturazko alderdietan eragiten duelako batez ere; aldiz, Ekintza Positiboak askoz azkarrago eragiten du desberdintasun egoera zehatzen aurrean.



4. BERDINTASUN PLANAREN EZAUGARRIAK

- ⊙ 4 urteko indarraldia du: 2006-2009 aldirako prestatu da.
- ⊙ Modu parte hartzailean prestatu da: aurreko diagnostiko bat erreferentzia gisa hartuz, eta Udal osoaren zein ukitutako agente lokal guztien partaidetzarekin.
- ⊙ Hezkuntza, Gazteria eta Emakume Sailak eta Berdintasunerako Udal Zerbitzuak koordinatu eta bultzatu dute, lehenengo fase honetan. Kasu honetan ere, Plana prestatzea eta abiaraztea aholkularitza enpresa aditu baten esku uztea erabaki da.
- ⊙ Plan irekia eta malgua da, bere ezarpen prozesuan aldaketak izan ditzake eta.
- ⊙ Plana ebaluagarria da, aurreikusitako helburuak ebaluatzeko hainbat adierazle erabiliko dira.
- ⊙ Planak esparru, helburu eta ekintza bideragarriak jasotzen ditu, dagokien Udal Sailek eta Erakundeek aurreikusitako denboran eta eskura dauden bitartekoak erabiliz gauzatuko dituztenak.
- ⊙ Plana **udalerrri osoari eragiten dion tresna** da, eta **politikarien, teknikarien nahiz herritarren konpromisoa** eskatzen du.
- ⊙ Planak 10 Esparru, 10 Helburu Orokor, 37 Helburu Zehatz eta 86 Ekintza jasotzen ditu.



5. JARDUERA ARLOAK ETA HELBURUAK

UDALEAN

1. ARLOA: BERDINTASUNERAKO EGITURAK ETA BALIABIDEAK SENDOTZEA
2. ARLOA: GENERO MAINSTREAMING-A SARTZEA

UDALERRIAN

3. ARLOA: BERDINTASUNEAN HEZTEA
4. ARLOA: PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA
5. ARLOA: UDALERRIKO EMAKUMEEN PARTAIDETZA
6. ARLOA: GIZARTERATZEA
7. ARLOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
8. ARLOA: OSASUNA ETA BIZI KALITATEA
9. ARLOA: AISIA, KULTURA ETA KIROLAK
10. ARLOA: HIRIGINTZA



UDALEAN..

1. ARLOA:

BERDINTASUNERAKO EGITURAK ETA BALIABIDEAK SENDOTZEA

Zeinahi delarik udala, Berdintasun Politikak ezartzeko, ezinbesteko egiturak, giza baliabideak eta bitarteko ekonomikoak eskuratzea da lehenengo urratsa. Laudioko Udalak konpromiso politiko garbia du emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko. Orain arte ez du gai hori kudeatzeko egitura egonkor eta zeharkakorik sortu; ez Udalean, ezta Udalerrian; baina premia horren beharraz jabeturik dago. Horregatik, Planaren 1. ARLOAK aipatutako egitura hori sortzeko beharra azpimarratzen du, I. Berdintasun Plan hau abiarazteko baliabideak eskuratzeko premiaz gain.

Planak bere horretan gordeko du berdintasunerako egungo egitura (Berdintasun Zerbitzua, Hezkuntza, Gazteria eta Emakume Sailaren barruan). Alabaina, Sail horri izena aldatuko zaio, Hezkuntza, Gazteria eta Berdintasun Saila bihurtzeko. Berdintasun Zerbitzua Alkatetzarekin eta gainerako Udal Sailekin arituko da lankidetzan. Izan ere, helburuek Udal osoari eragiten diote (araudiak, prozedurak, lan harremanak, kontratazioa etab.), eta baita herritarrei (adin eta gizarte egoera guztietakoak) eta Udal Sail guztien politika eta ekintza orori ere (Enplegua, Osasuna, Gazteria, Kultura, Kirolak, Hirigintza...).

Bestalde, egitura horrek ezinbestekoak ditu baliabide ekonomikoak bere helburuak betetzeko eta ekintzak bultzatzeko. Baliabideak nahikoak izan behar dira Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunean espezializatutako langile egonkorak kontratatzeko, eta ekitaldi bakoitzean burutzen diren ekintzen ondorio zuzenak diren bestelako gastuak ordaintzeko. Zuzkidura ekonomiko hori Berdintasun Zerbitzuak eta gainerako Udal Sailek jarri beharko dute (Berdintasun Planak sail guztiei eragiten die zeharka). Beraz, Udal Sail guztiak izan beharko dira gai urteko Plan Operatiboetan parte hartzeko eta plan horiek kudeatzeko. Horretarako, Sail Arteko Batzorde Tekniko bat sortzea proposatzen dugu, urteko plan operatiboetan aurreikusitako ekintzak kudea ditzan. Batzordeko kideek, arian-arian, Aukera Berdintasunari buruzko prestakuntza jasoko dute ka, eta horrela, genero ikuspegia Udalaren funtzionamendu osora zabalduko da.



Funtsezkoa da, halaber, Berdintasun Planaren eta bertatik sortutako Zerbitzuen berri ematea, bitartekoak ahalik eta herritar gehienengana hel daitezen, emakume zein gizon.

Azkenik, Berdintasun Planaren lehen Esparru honetan helburu hauek finkatu dira:

- Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna kudeatzeko egitura egonkor bat edukitzea, Udalean zein Udalerrian.
- Urteko aurrekontua edukitzea, Berdintasun Zerbitzuan nahiz Udal Sail bakoitzean, Berdintasun Planeko ekintzak abiarazi ahal izateko.
- Udaleko langile eta kargu politiko guztiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Planaren edukiak ongi ezagutzea (esparruak, helburuak eta ekintzak).

1. HELBURUA:

I. Berdintasun Plana abiarazteko baldintzak zehaztea.



1.1. HELBURU ZEHATZA. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna kudeatzeko egitura egonkor bat edukitzea, Udalean zein Udalerrian

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
1.1.1	Hezkuntza, Gazteria eta Emakume Sailari beste izan hau ematea: Hezkuntza, Gazteria eta Berdintasun Saila.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa	Alkatetza Zinegotziak	2006ko abendua
1.1.2	Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunean trebatutako langile egonkorak edukitzea, Aukera Berdintasunerako udal zerbitzua kudeatzeko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa	Alkatetza Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa	2007ko abendua
1.1.3	Arduradun teknikoez osaturiko Lan Batzordea sortzea, I. Berdintasun Planetik ondorioztatutakoak kontuan, urteko planak zehazteko eta kudeatzeko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	Alkatetza Zinegotziak	2006ko abendua
1.1.4.	Barne hobekuntzarako taldeak sortzea, udal zerbitzuetan eta prozesuetan genero ikuspegia zeharka sartzeko.	Berdintasun Zerbitzua	Udal Arlo eta Sail guztiak	2007, 2008 eta 2009



1.2. HELBURU ZEHATZA. Berdintasun Planetik ondorioztatutako ekintzetarako urteko aurrekontua zehaztea, Planak ukitutako Udal Sail bakoitzean.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
1.2.1	Udaleko urteko aurrekontukoan kontu-sailetako bat Berdintasun Planetik ondorioztatutako ekintzen ezarpenerako gordetzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa	Alkatetza Ogasun eta Ondare Arloa	2006ko abendua, 2007, 2008 eta 2009
1.2.2	Udal Sail bakoitzean, aurrekontuaren zati bat Sail horri dagozkion Planeko ekintzetara zuzentzea.	Udal Arlo eta Sail guztiak	Ogasun eta Ondare Arloa Berdintasun Zerbitzua	2006ko abendua, 2007, 2008 eta 2009
1.2.3	Urtero, gastu publikoa genero ikuspegitik aztertzea.	Ogasun eta Ondare Arloa	Berdintasun Zerbitzua	2006ko abendua, 2007, 2008 eta 2009



1.3. HELBURU ZEHATZA. Udaleko langile eta kargu politiko guztiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Planaren edukiak ongi ezagutzea (arloak, helburuak eta ekintzak).

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
1.3.1	Arlo eta Sail bakoitzeko Batzorde Politikoei eta Informazio Batzordeari Berdintasunerako I. Planean jasotako ekintzak azaltzea, urteko aurrekontuak eta programa operatiboak modu kontzienteagoan erabaki eta zehazteko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	Alkatetza Alderdi politiko eta arduradun tekniko guztiak	2006ko abendua, 2007, 2008 eta 2009



2. ARLOA. GENERO MAINSTREAMING-A SARTZEA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, generoko mainstreaming-ak zera esan nahi du: genero ikuspegia politika eta ekintza guztietan sartzea, eta desberdintasunak ezabatzea, gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko. Modu sistematikoan emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, nahi eta premiak kontuan hartzea da, eta horretarako ekintza eta helburu zehatzak finkatzea desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna bultzatzeko, plangintza, egikaritzea eta ebaluazio fase guztietan.

Mainstreaming-a ekintza publikoetan sartzeko 4 ardatz estrategiko hauek daude:

- Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza.
- Berdintasunezko tratua komunikazioan.
- Udal estatistiken bilketa, azterketa eta tratamenduan genero ikuspegia sartzea.
- Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua udal esparru guztietan.

I. Plan honetan aipatutako alderdi guztiak kontuan hartu dira, 4 azpiesparrutan sailkatuta. Azpiesparru bakoitzak Udalaren jardueran genero ikuspegia sartzeko helburu eta ekintzak biltzen ditu. Hauek dira azpiesparruok:

- 2.1. azpiarloa: Kargu politikoak eta Udaleko langileak sentsibilizatzea eta prestatzea.
- 2.2. azpiarloa: Berdintasuna komunikatuz eta adieraziz.
- 2.3. azpiarloa: Udal estatistikak genero ikuspegia aintzatetsiz biltzea, aztertzea eta tratatzea.
- 2.4. azpiarloa: Udaleko emakumeen partaidetza.



Generoko mainstreaming-a ezartzeko erabili nahi den kudeaketa sistemari dagokionez, bi ildori jarraituko zaie. Alde batetik, genero ikuspegia Udal Zerbitzuetan sartuko da; bestetik, Udaleko jardueren Prozesuetan. Udal Zerbitzuei dagokienez, helburua 2006-2009 aldian genero ikuspegia 3 Zerbitzutan sartzea da. Zerbitzu horiek Sail bakoitzarekin negoziatu beharko lukete eta I. Plana onetsi ondoren abiarazi beharko lukete. Horrez gain, udal prozesuak berrikusiko dira genero ikuspegia sartzeko; ildo osagarri horri esker, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Udal osora zabalduko da. Hona hemen eratuko diren hobekuntza taldeak:

1. taldea: Udalaren agiriari hizkera eta irudietan emakumei eta gizonei tratamendu berdina emateko hobekuntza taldea.
2. taldea: Udal estatistiken bilketa, azterketa eta tratamenduan genero ikuspegia aintzatesteko hobekuntza taldea.
3. taldea: Udaleko barne sustapeneko prozesua hobetzeko taldea.
4. taldea: Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak hobetzeko taldea.

2. HELBURUA:

Genero ikuspegia txertatzea udalaren funtzionamenduan.



2.1. AZPIARLOA: KARGU POLITIKOAK ETA UDALEKO LANGILEAK SENTSIBILIZATZEA ETA PRESTATZEA.

2.1.1. HELBURU ZEHATZA. Udaleko kargu politikoak sentsibilizatzea gizarteko esparru guztietan genero desberdintasuna badela onartzeko.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.1.1.1.	<p>Kargu politikoekin eratutako eztabaida taldeak antolatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaz.</p> <p>Gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ EAEn emakumeen eta gizonen baldintzak eta posizioak. ▪ Oinarrizko printzipioak ▪ Berdintasun Politikak ▪ Berdintasun araudiak 	<p>Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa</p> <p>Berdintasun Zerbitzua</p> <p>Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa</p>	<p>Alkatetza</p> <p>Zinegotziak</p>	<p>Urtez urte</p>
2.1.1.2.	<p>Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna eta Politika Publikoak langai dituzten jardunaldi eta mintegietara joatea.</p>	<p>Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa</p> <p>Zinegotziak</p>	<p>Alkatetza</p> <p>Berdintasun Zerbitzua</p>	<p>Etengabe</p>
2.1.1.3.	<p>Kargu politikoaren artean Egoeraren Diagnostikoa eta Berdintasun Plana hedatzea eta ezagutaraztea.</p>	<p>Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa</p> <p>Berdintasun Zerbitzua</p>	<p>Alkatetza</p> <p>Zinegotziak</p>	<p>2006ko abendua</p>



2.1.2. HELBURU ZEHATZA. Udaleko langile guztiak sentsibilizatzea gizarteko esparru guztietan genero desberdintasuna badela onartzeko.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.1.2.1.	Udaleko langileen artean Egoeraren Diagnostikoa eta Berdintasun Plana zabaltzea, hedatzea eta ezagutaraztea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2006ko abendua
2.1.2.2.	Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna eta Politika Publikoak langai dituzten jardunaldi eta mintegietara joatea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	Etengabe
2.1.2.3	Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren arloko oinarizko prestakuntza jasotzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2006, 2007, 2008, 2009
2.1.2.4.	Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunarekin loturiko informazioa eta albisteak bidaltzea Arlo eta Sail bakoitzari.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	Etengabe



2.1.3. HELBURU ZEHATZA. Eusko Legebiltzarrak onetsitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera bete behar dituzten eginkizunak jakinaraztea Udaleko langileei eta kargu politikoei.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.1.3.1.	Toki Administrazioetan Berdintasuna bultzatzeko Legeak ezartzen dituen eginkizunak jakinaraztea Udalaren Informazio Batzordeetan.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Zinegotziak	2006ko abendua
2.1.3.2.	Udaletan genero ikuspegia sartzeko Berdintasun Legeak ezartzen dituen neurriak jakinaraztea Sail bakoitzari.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2007 ekaina



2.2. AZPIARLOA: BERDINTASUNA KOMUNIKATUZ ETA ADIERAZIZ.

2.2.1. HELBURU ZEHATZA. Udaleko langileen eguneroko lana instituzionalizatzea eta sistematizatzea, Sail bakoitzak prestatutako agirietan berdintasunezko hizkera eta irudiak erabil daitezen, eta Udaleko informazio guztia udalerriko gizon zein emakumeengana hel dadin.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.2.1.1.	Udaleko agiriak (barnekoak zein kanpokoak) prestatzeaz arduratzen diren pertonez osaturiko hobekuntza taldea sortzea, agiriak prestatzeko eta entregatzeko prozesuak identifikatu genero ikuspegia aintzatesteko lan egitasmoa ezarriko duena.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2007ko abendua



2.2.2. HELBURU ZEHATZA. Udalak azpikontraturiko enpresek prestatzen dituzten agirietan berdintasunezko hizkera eta irudiak azaltzea.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.2.2.1	4/2005 Berdintasun Legearen arabera, Udaleko agirietako hizkera eta irudietan emakume zein gizonei berdintasunezko tratua eman behar zaiela jakinaraztea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2007ko abendua
2.2.2.2.	Enpresak kontratatzeke Udalaren baldintza tekniko eta administratiboen agirietan, azpikontraturiko obra edo zerbitzuetan ere erabiliko diren dokumentu idatzi nahiz ikonografikoetan berdintasunezko hizkera eta irudiak erabili beharko dutela adieraztea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2007ko abendua



2.2.3. HELBURU ZEHATZA. Emakumeek bilera eta lantaldeei egiten dizkieten ekarpenak aitortzea eta iruzkin nahiz tratu sexistak ezabatzea Udaletik.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.2.3.1.	Emakumeek eta gizonek egindako ekarpenei buruzko udal aktak aztertu eta diskriminaziozko tratuak antzematea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2008ko abendua
2.2.3.2.	Udal barnean galdeketa anonimo bat egitea, emakumeek lan bileretan dituzten zailtasunak (politikoak zein pertsonalak) eta tratu sexistak identifikatzeko. Emaizak zabaltzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak Langileen Batzordea Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordea.	2008ko abendua
2.2.3.3.	Udalan sentsibilizazio kanpaina abiaraztea, emakumeen ekarpenak behar bezala aitortzeko eta tratu sexistak ezabatzeko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak Langileen Batzordea Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordea.	2009ko abendua



2.3. AZPIARLOA: UDAL ESTATISTIKAK GENERO IKUSPEGIA AINTZATETSIZ BILTzea, AZTERTzea ETA TRATATzea.

2.3.1. HELBURU ZEHATZA. Udaleko estatistika eta txostenetako datuak biltzerakoan, tratatzerakoan eta aztertzerakoan genero ikuspegia kontuan hartzea.

EKINTZAK		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.3.1.1	Udaleko estatistikak eta ikerketak egiteaz arduratzen diren pertonez osaturiko hobekuntza talde bat sortzea, emakumeei eta gizonei buruzko datuak biltzeko prozesuak identifikatu ostean, prozesuotan genero ikuspegia sartzeko lan egitasmoa ezartzeko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2007ko abendua



2.4. AZPIARLOA: UDALEKO EMAKUMEEN PARTAIDETZA.

2.4.1. HELBURU ZEHATZA. Orekatzea emakumeen eta gizonen zenbatekoa Udaltzaingoa, Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lanak eta Euskara Arloetan (batez ere, funtzionario izaerako laneko loturan eta D mailetan)

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.1.1.	Gaitasun berdinarean aurrean, lehentasuna ematea Laudio Udalean sartzeko, hornidura eta sustapen prozesura selektiboetan emakumeei % 40 baino gutxiagoko ordezkari-tza duten gorputz, eskala, maila eta kategorietan, batez ere.	Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa	Berdintasun Zerbitzua	2006, 2007, 2008 eta eta 2009
2.4.1.2.	Kontrazioa egin baino lehen, ekintza positiboak egitea, emakumeen presentzia areagotzeko Udaltzaingoa, Obretako brigadan, kiroldegian eta bulego teknikoan, urtez urteko gutxieneko progresio minimoa ezarrita.	Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa	Berdintasun Zerbitzua	2006, 2007, 2008 eta eta 2009
2.4.1.3	Kontratazioa egin baino lehen, ekintza positiboak egitea, INEM/Toki Korporazioak eta AUZOLAN programeten azpiordezkari-tza dauden postuetan kontratazioa areagotzea.	Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa	Berdintasun Zerbitzua Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	2006, 2007, 2008 eta eta 2009
2.4.1.4.	Kontrataziorako Epai-mahaiak eratzea emakumeen eta gizonen presentzia orekatuz, araudiak eskatutako titulazio akademikoa eta espeziazilazazioa errespetatuz.	Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa	Berdintasun Zerbitzua	2006, 2007, 2008 eta eta 2009



2.4.2. HELBURU ZEHATZA. Emakumezko irakasleen kopurua handitzea “gizonenak” izan ohi diren Lanbide Hezkuntzako Udal Zentroko adarretan.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.2.1.	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gutun bat helaraztea, Lanbide Heziketako Udal Zentroko lanpostuak betetzeko ordezkari zerrendetan %50 emakumeak izan daitezzen eskatzeko.	Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa	Berdintasun Zerbitzua	2007ko abendua

2.4.3. HELBURU ZEHATZA. Emakumeen eta gizonen kopurua berdintzea Barne Batzordeetan eta Langileen Batzordean.

EKINTZAK		SAIL EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.3.1	Partaidetza kuotak ezartzea baldin eta Barne Batzordeetan eta Langileen Batzordean, bi sexuetako edozeinen ordezkari %40tik beherakoa bada.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakume Saila Berdintasun Zerbitzua	Alkatetza Udal Sail guztiak	2007ko abendua



2.4.4. HELBURU ZEHATZA. Barne sustapenak egiterakoan Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna kontuan hartzea.

EKINTZAK		SAIL EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.4.1.	Barne sustapenaren arduradunetz eraturiko lantaldea sortzea, sustapen prozesua identifikatu eta bertan genero ikuspegia sartzeko lan egitasmoa ezartzeko.	Funtzio Publikoaren eta Lan Harremanen Saila	Alkatetza Berdintasun Zerbitzua Langileen Batzordea	2009ko abendua

2.4.5. HELBURU ZEHATZA. Udal Gobernu parekidea sortzera zuzendutako joera areagotzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.5.1	Hurrengo agintaldian, kargu politikoaren artean emakumeen presentzia % 50 handitzea bultzatzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA	2007



2.4.6. HELBURU ZEHATZA: Lan hitzarmenean jasota dauden bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak hobetzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.6.1	Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak kudeatzeaz arduratzen diren pertsoez osaturiko lantaldea sortzea, eta neurri horiek hobetzeko proposamenak aurkeztea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa Langileen Batzordea	2008ko abendua

2.4.7. HELBURU ZEHATZA. Familia eta lana uztartzeko neurrietara jotzen duten Udaleko langileen kopurua handitzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.7.1.	Udal barruan sentsibilizazio kanpaina egitea, mendeko pertsonen zein pertsona burujabeen zainketan gizonek duten erantzukizun bateratuaz ohartarazteko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA Udal Arlo eta Sail guztiak	2007ko abendua



2.4.8. HELBURU ZEHATZA. Lanpostuen Balorazioan genero ikuspegia sartzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.8.1	Aholkularitza enpresaren bat kontratatzea, lanpostuen egungo balorazioa genero ikuspegia aintzatetsiz berrazter dezan.	Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa	ALKATETZA Berdintasun Zerbitzua Langileen Batzordea	2008ko abendua

2.4.9. HELBURU ZEHATZA. Udalean lan egiten duten emakume guztien jabeakuntza bultzatzea (garbitzaileak, laguntzaileak, administrariak, teknikariak, buruak, zinegotziak etab.).

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.4.9.1.	Udaleko langileen artean emakumez osaturiko jabeakuntza taldeak sortzea, eskari gehien duten alderdietan prestakuntza emateko (lidergorako edo negoziatorako gaitasunak, jendaurrean hitz egiteko trebetasuna etab.).	Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloa Prestakuntza Batzordea	ALKATETZA Zinegotziak Udal Arlo eta Sail guztiak Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	2007, 2008 eta 2009



2.5. AZPIARLOA: BERDINTASUNEZKO UDAL ZERBITZUAK ESKAINIZ.

2.5.1. HELBURU ZEHATZA. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Udal Zerbitzuetan sartzea.				
EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
2.5.1.1.	Genero ikuspegia A Zerbitzuan sartzea (bere plangintza, ezarpen eta ebaluazioan), beste zerbitzu batzuetara zabal daitezkeen estrategiak eta tresnak sortuz.	A Zerbitzua Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA	2007
2.5.1.2.	Aurreko prozesua Zerbitzu hauetara zabaltzea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ B ▪ C 	B eta C Zerbitzuak Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA	2008 eta 2009



UDALERRIAN..

3. ARLOA. BERDINTASUNEAN HEZTEA

Hezkuntza da gizakiaren nortasuna garatzeko tresna nagusia, horixe baitarabilte komunitate bateko kideek sozializatzeko. Ildo horretatik, oso garrantzitsua da haurrei transmititzen zaizkien edukiak, balioak, jarduerak eta igurikiak aztertzea; eta gauza batzuk “neskenak” eta beste batzuk “mutilenak” diren pentsaera baztertzea. “Hezkidetzak” neskak eta mutilak eskubide eta aukera berdinekin heztea da, sexu desberdintasunek mendekotasun edo bazterketarik eragin gabe. Hezkidetzaren arabera, gizonari eta emakumeei egotzi ohi zaizkien jarrera eta balioak edozein sexutako zeinahi pertsona onartu eta bere egin ditzake.

Laudion egindako diagnostikoak erakusten duenez, ikastetxe batzuetan hezkidetzak eskaintzen den arren, sistema hau ez dago modu sistematikoan ezarrita. Gainera, 0 eta 2 urte bitarteko haurren eskolatzak ez ditu premia guztiak betetzen.

Bestalde, helduen hezkuntzari dagokionez, nabaria da eskola orduak, prestakuntzakoak eta lanekoak ez datozela bat; eta, beraz, familia erantzukizunak dituzten emakumeei oso zaila zaiela prestakuntza ikastaroetara joatea.

3. HELBURUA:

Udalerriko hezkuntza baliabideetan genero ikuspegia sartzea.



3.1. HELBURU ZEHATZA. Udala 0 eta 3 urte bitarteko haurren zainketa eta hezkuntzaz arduratzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
3.1.1.	0 eta 2 urte bitarteko haurrentzako Eskola Publikoko edo 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako Arreta Zerbitzuen bideragarritasuna aztertzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua	2007

.3.2. HELBURU ZEHATZA. Hezkidetzak sistematikoki ezartzea Haur Hezkuntzan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Lanerako Prestakuntzan.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
3.2.1.	Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Heziketa Zikloetako ikasleei zuzendutako "Berdintasunerako Balioen Gela" bat sortzea eta sistematikoki ezartzea Audioko ikastetxeetan.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua	2007, 2008, 2009



3.3. HELBURU ZEHATZA. Emakumeek Laudioko ikastetxeetan erantzukizuneko karguetan duten presentzia indartzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTAILEAK	BURUTZEKO EPEA
3.3.1.	Laudioko ikastetxeetako kudeaketa taldeei prestakuntza ikastaroak ematea Aukera Berdintasunaren inguruan.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Berdintasun Zerbitzua Hezkuntza Zentroak Enpresak Elkarteak eta Klubak	2008, 2009

3.4. HELBURU ZEHATZA. Mendeko pertsonen zein pertsona burujabeen zaintzaileei prestakuntza ematea, enplegarritasuna bultzatzeko.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTAILEAK	BURUTZEKO EPEA
3.4.1.	Lan batzorderen bat sortzea ikastetxeen ordutegiak nahiz egutegia bateratzeko (Haur eta Lehen Hezkuntza, HHE), bizitza pertsonala, familia eta lana uztartu ahal izateko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza Hezkuntza Zentroak Enpresak Elkarteak eta Klubak	2008, 2009



ARLOA 4 PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA

Aukera Berdintasunari buruzko Diagnostikoan jasotako datuen arabera, Laudion langabezia tasa altua dago lehen enpleguaren bila dabiltzan emakumeen artean. Bestalde, oinarrizko ikasketak dituzten 35 urtetik gorako emakumeek zailtasun handiak dituzte lana bilatzeko. Gainera, inguruko enpresek ez dute ia emakumerik kontratatzen “gizonenak” izan ohi diren lanbideetarako. Azkenik, emakumeen presentzia oso urria da “gizonenak” izan ohi diren lanerako prestakuntzan eta lanbide heziketan.

Laudioko Enplegu Zerbitzuek premia hauek azpimarratu dituzte emakumeen enpleguari begira:

- Lan merkatuan sartzeko ordutegi malguagoak.
- Inguruko enpresetan emakumeen kontratazioa handitzea, batez ere gizonenak izan diren lanbideetan.
- Emakumeen lan baldintzak hobetzea: kolokatasuna, behin-behinekotasuna.
- Emakume ezinduen eta 45 urtetik gorako emakumeen enplegua sustatzeko kontratazioak eta gaitasunak bultzatzea.
- Norberaren konturako enplegua bultzatzea.

Prestakuntza arloan, profesionalen iritziz, ikastaroetako ordutegiak malgotu eta emakumeen premietara egokitu behar dira. Prestakuntza eskaintza inguruko enpresen eskaeretara egokitu behar da, eta, horrekin batera, emakumeak zein familiak sentsibilizatu behar dira, gizonenak izan ohi diren lanbideak ere kontuan har ditzaten. Azkenik, landa inguruneke emakumeei erraztasunak eskaini beharko litzaizkieke garraio zailtasunak gainditzeko.

4. HELBURUA:

Laudio emakumeen prestakuntza eta enplegurako sarbidea eta partaidetza orekatzea.



4.1. HELBURU ZEHATZA. Udaleko Prestakuntza eta Enplegu Saila berregituratzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.1.1.	Genero ikuspegia barne hartzen duen Enplegu Plana diseinatzea. Enpleguaren sustapenari dagokionez Laudion dauden premiak aztertuko dira; ondoren, Prestakuntza eta Enplegu Sailaren egitura (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) premia horietara egokituko da, prestakuntzarekin eta enpleguarekin zerikusia duten udalerriko erakunde guztien partaidetzarekin.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea. Laudioko Udala. SARTU LAUDIO	2007-2008

4.2. HELBURU ZEHATZA. Aukera Berdintasuna Lanbide Heziketako Udal Zentroaren kudeaketan sartzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.2.1.	Lanbide Heziketako Udal Zentroaren Diagnostikoa eta Berdintasun Plana egitea, barne funtzionamenduaren nahiz Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea.	2007 - 2008



4.3. HELBURU ZEHATZA. Nesken eta mutilen kopurua berdintzea udalerrian eskaintzen diren lanbide heziketako adar eta zikloetan (Lanbide Heziketako Udal Zentroa, Institutua, ALMI Akademia).

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.3.1.	Ateak zabaltzeko egunak antolatzea udalerriko ikastetxeetan, familia nahiz ikasleentzat, sexu batekoen nahiz bestekoek ordezkari txikia duten prestakuntza adarretan beren presentzia handitu dadin.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea. Laudioko Ikastetxeak	2008
4.3.2.	Emakumeen ordezkari txikia duten LHUZko prestakuntza adarretan neskentzako sarrera kuotaren bat ezartzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea.	-	2008, 2009



4.4. HELBURU ZEHATZA. Inguruko bigarren sektoreko enpresetan, emakumeek zuzendaritza kargu eta kargu teknikoetan duten presentzia indartzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.4.1.	Inguruko familia eta enpresetan kanpaina bat egitea, oro har emakumeen kontratazioa bultzatzeko eta ordezkariak txikia duten karguetan beren presentzia handitzeko.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua	2008, 2009
4.4.2.	Bigarren sektoreko enpresetan zuzendaritza kargu eta kargu teknikoetarako hautagaiak diren emakume laudiotarren lan poltsa kudeatzea eta haren berri ematea.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	LHUI Laudioko Ikastetxeak SARTU AUDIO INEM	2008, 2009



4.5. HELBURU ZEHATZA. Bai lehenengo enpleguaren bila dabilzan emakumeen, bai 35 urtetik gorako emakumeen, bai oinarritzko ikasketak dituzten emakumeen lan munduratzeari bultzatzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.5.1.	Emakume horiek lan munduan sartzeko dituzten eragozpenak aztertzea.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Laudioko Ikastetxeak SARTU LAUDIO INEM	2007, 2008 eta 2009
4.5.2	Emakume horiei zuzendutako prestakuntza eta enplegu ekintzak antolatzea Prestakuntza eta Enplegu Sailetik.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Laudioko Ikastetxeak SARTU LAUDIO INEM	2007, 2008 eta 2009



4.6. HELBURU ZEHATZA. Emakumeen autoenplegua eta emakumeek sortutako enpresak bultzatzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.6.1.	Laudioko emakumeek enpresak sortzeko dituzten benetako aukeren diagnostikoa egitea.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Laudioko Ikastetxeak SARTU LAUDIO INEM	2006
4.6.2.	Udalerriko emakumeen autoenplegurako Plana egitea.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua SARTU LAUDIO	2007

4.7. HELBURU ZEHATZA. Bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeak (etorkinak, ezinduak, guraso bakarreko familien buruak, etab.) prestatzea, gizartean eta lanean txerta daitezen.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.7.1.	Bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeentzako lanerako prestakuntza berezia antolatzea, edo emakume horiei lehendik ere baden lanerako prestakuntzan inkorpora daitezen kudeaketa lana egitea.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Laudioko Ikastetxeak SARTU LAUDIO INEM	2007



4.8. HELBURU ZEHATZA. Lan munduan sartu nahi duten emakumeei laguntza eskaintzea bizitza familiarra, prestakuntza eta lana uztar ditzaten.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
4.8.1.	Mendeko pertsonak zaintzeko zerbitzuak sortzea.	Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua	2007, 2008 eta 2009
4.8.2.	Gizonei pertsonen zainketan eta etxeko lanetan duten erantzukizun bateratuaz ohartaraztea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa	2007, 2008 eta 2009



5. ARLOA: UDALERRIKO EMAKUMEEN PARTAIDETZA

Gizarteko esparru guztietan emakumeen partaidetza indartzea da Berdintasun Planen funtsezko helburuetako bat. Partaidetza hori gauzatzeko, ordea, ezinbestekoa da emakumeen jabetasuna lortzea. Emakumeen Jabetasuna edo "Empowerment" delakoa, 1995ean Pekinen antolatutako Emakumeen IV. Munduko Biltzarraren gakoetako bat izan zen. Emaitzen berdintasuna bultzatzeko estrategia bat da. Bi dimentsio ditu: indibiduala eta soziala. Dimentsio indibidualari dagokionez, emakumeak gizabanako gisa zein talde bateko kide gisa duten botereaz jabetu behar dira, beren duintasuna berreskura dezaten. Aldiz, dimentsio sozialari dagokionez, emakumeek erabakiak hartzen diren tokietan egon behar dute, hau da, beren boterea erabili behar dute.

Laudioko I. Berdintasun Plan honetan, helburu nagusia emakumeen elkartegintza bultzatzea eta dibertsifikatzea da, bai eta elkartegintza horrek nahiz etorkizunean gara litekeenak Udal Politikan duen partaidetza indartzeari ere.

Ildo horretatik, Laudioko Aukera Berdintasunaren diagnostikoaren arabera, emakumeen elkartegintzak eskarmentu handia du eta ongi koordinatuta dago Berdintasun Zerbitzuarekin. Hala ere, badago elkartegintza dibertsifikatzeko premia ere.

5. HELBURUA:

Udalerriko adin guztietako emakumeen jabetasuna bultzatzea.



5.1. HELBURU ZEHATZA. Emakumeek udal erabakietan parte hartzeko organoa sortzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
5.1.1.	Udalak koordinatutako Berdintasun Kontseilua sortzea, emakumeek parte har dezaten (emakume elkarteak, kultur eta kirol elkarteak, pertsona garrantzitsuak etab.).	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua	ALKATETZA GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA Kultura, Kirolak eta Jaiak.	2008ko abendua

5.2. HELBURU ZEHATZA. Emakumeen elkartegintza dibertsifikatzea (emakume gazteak, etorkinak, ezinduak, enpresari eta autonomoak, etab.).

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
5.2.1.	Emakumeen Elkartegintzari buruzko jardunaldiak antolatzea, hainbat emakume talderi zuzenduriko tailerrak barne.	Berdintasun Zerbitzua	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Gizarte Ongizate Arloa Enplegu eta Prestakuntza Arloa Udalerriko emakumeen elkarteak Cáritas Beste Elkarte batzuk	2007, 2008 eta 2009
5.2.2.	Emakume elkarteak sortzeko diru-laguntzak ematea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua	2007, 2008 eta 2009



5.3. HELBURU ZEHATZA. Emakumeek udalerriko emakume elkarteetan duten partaidetza indartzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
5.3.1.	Elkarteetako kide diren emakumeentzako ikastaroak antolatzea gai hauen inguruan: kudeaketa, lidergoa, jendaurrean hitz egitea...	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua Udalerriko emakumeen elkarteak	2007, 2008 eta 2009



6. ARLOA. GIZARTERATZEA

“Gizarte bazterketak, hau da, herritar guztien gizarte eskubideak bermatzeko (lanerako, hezkuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako, osasunerako, gizarte babeserako eskubidea, etab.) gizarteak duen gaitasun ezak, gehiago eragiten die emakumeei.

Lan merkatuan txertatzeko ezintasunak edo zailtasunak ez ezik, beste faktore batzuek ere bazterketa prozesuak eragin ditzakete: talde etniko txiki batekoa izateak, arrazak, koloreak, gaixotasunak, urritasunak, mendekotasunak... Genero harreman hierarkikoetan oinarritutako gizarte ereduaren ondorioz, prozesu horiek kalte handiagoa egiten diete emakumeei. Emakumeek diskriminazio anizkoitza jasan behar izaten dute: sexuagatik ez ezik, beste faktore batzuegatiko bereizkeria ere pairatzen dute.” (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren 2. Zirriborroa. EMAKUNDE).

Laudion egindako Diagnostikoaren arabera, eta Gizarte Zerbitzuek diotenez, emakumeak dira Oinarrizko Errentaren hartzaile nagusiak, batez ere banandutako emakumeak, eta horien atzetik senargabeak. Bestalde, errenta horren hartzaileen %18 etorkinak dira. Eta horietatik %6a talde etniko txikiak.

6. HELBURUA:

Udalerriko emakume etorkinen egoera goitik behera aztertzea.



6.1. HELBURU ZEHATZA. Genero ikuspegia Gizarte Ongizateko programa nahiz zerbitzuen diagnostiko, plangintza eta eskuhartzeetan sartzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
6.1.1.	Genero ikuspegia A Zerbitzuan sartzea, beste Udal Zerbitzu batzuetara zabal daitezkeen estrategiak eta tresnak sortuz.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua	2007
6.1.2.	Aurreko programa edo zerbitzuko langileei genero ikuspegiak jabetzeko kontzeptuak eta tresnak irakastea	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua	2007

6.2. HELBURU ZEHATZA. Pobrezia eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
6.2.1.	Abiarazitako programa eta baliabideen jarraipena egitea eta emakumeengan duten eragina aztertzea, premia praktikoak eta interes estrategikoak kontuan izanik.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua	2007



6.3. HELBURU ZEHATZA. Drogazaletasun arazoak dituzten pertsoneri zuzendutako baliabideetan genero ikuspegia aintzatestea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
6.3.1.	Drogazaletasunetan eragina duten genero rolekin zerikusia duten faktoreak aztertzea.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua	2007
6.3.2.	Genero rolek drogen kontsumoan duten eraginari buruzko sentsibilizazio programak egitea, Drogazaletasunen Prebentziorako Udal Bulegoko programetako langileei eta egoera horretan dauden emakume zein familiei zuzenduak.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua	2008, 2009

6.4. HELBURU ZEHATZA. Emakume etorkinen baldintzak, egoerak eta premiak ezagutzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
6.4.1.	Laudioko emakume etorkinen baldintza, egoera eta premiak aztertzea, talde horiekin lan egiten duten udal zerbitzuen jarduerak gidatzeko neurriak eta ildoak zehazteko.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua CÁRITAS EPA SARTU LAUDIO	2007



6.5. HELBURU ZEHATZA. Emakume ezinduen egoera ezagutzea eta hobetzea.				
EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
6.5.1.	Ezintasun funtzionala, fisikoa eta psikologikoa duten emakumeen errealitate zehatza aztertzea.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua	2007
6.5.2.	Ezindutako emakumeen egoerari buruzko jardunaldiak antolatzea, ezindutako emakumeen elkarteren baten sor dadin eragiteko.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua	2008, 2009



7. ARLOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria honela deskriba daiteke: “sexuagatiko edozein indarkeriazko ekintza, emakumeari kalte fisikoa, sexuala nahiz psikologikoa edota sufrimendua eragiten diona edo eragin diezaiokeena, aipatu ekintzak egiteko mehatxuak, hertsapena edo askatasuna modu arbitrarioan kentzea barne, bizitza publikoan zein pribatuan” (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea. VII. Kapitulua). Legearen arabera, egoera horri aurre egiteko bilerak nagusi daude: alde batetik, ikerketa, prebentzioa eta prestakuntza, eta bestetik, etxeko tratatu txarren eta sexu eraso biktimen arreta eta babesa. Laudioko I. Berdintasun Plan honek emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko tresna ere izan nahi du.

Egun, Laudio Udala emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean jokatzeko protokoloa prestatzen ari da. Gainera, tratatu txarren biktimei aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologikoa eskaintzen die, eta larrialdi sozial zein juridikoetarako etxebizitza bat ere bai. Herritarrek, oro har, ez omen dakite nola jokatu genero indarkeriaren biktima izanez gero.

7. HELBURUA:

Laudioko emakumeen aurkako indarkeria oro prebenitzea eta desagerraraztea, eta tratatu txarren biktimei arreta eraginkorra eskaintzea.



7.1. HELBURU ZEHATZA. Emakumeengan nahiz gizonengan jarrera positiboa sorraraztea, emakumeen aurkako indarkeriari bakarka edo taldean aurre egitearekiko.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
7.1.1.	Gizonak emakumeen aurkako indarkeriarekiko sensibilizatzea, jarrera positiboak sorrarazteko eta indarkeria horren aurka borroka dezaten.	Berdintasun Zerbitzua	Udal Arlo eta Sail guztiak udalerriko Elkarateak eta Klubak Hezkuntza Zentroak Sindikatuak	2007
7.1.2.	Urtero kanpainaren bat abiaraztea, jarrera positiboak sorrarazteko eta indarkeria horren aurka borrokatzeko.	Berdintasun Zerbitzua	Udal Arlo eta Sail guztiak udalerriko Elkarateak eta Klubak Hezkuntza Zentroak Sindikatuak Indarkeriaren aurkako gizonen taldeak	2007, 2008 eta 2009



7.2. HELBURU ZEHATZA. Emakumeen aurkako indarkeria txikitandik prebenitzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
7.2.1.	Ikastetxeetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko tailerrak antolatzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua Hezkuntza Zentroak	2007, 2008, 2009
7.2.2.	Ikastetxeetako ekintza protokoloa hobetzea, genero indarkeria jasaten duten neska gazteak zaintzeko.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua Hezkuntza Zentroak	2007, 2008, 2009
7.3.3.	Guraso Eskoletan indarkeriazko jarrerak txikitatik prebenitzeko aztertzea.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa.	Berdintasun Zerbitzua Hezkuntza Zentroak	2007, 2008, 2009



7.3. HELBURU ZEHATZA. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta eraginkorra eskaintzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
7.3.1.	Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobearekin Emateko Erakunde Arterako Hitzarmena Tokiko Administrazioa egokitzea.	Berdintasun Zerbitzua	Gizarte Ongizate Arloa Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Udaltzaingoa	2007
7.3.2.	Tratu txarren biktimak zaintzeko udal protokoloa teknikariei prestakuntza ematea.	Berdintasun Zerbitzua	Gizarte Ongizate Arloa Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Udaltzaingoa	2007, 2008, 2009



8. ARLOA: OSASUNA ETA BIZI-KALITATEA

Osasuna ikuspegi integraletik gaixotasunik gabeko egoera baino askoz konplexuagoa da. Hau da, osasun eta gaixotasun ereduak ez ezik, bizitzako hainbat faktore ere kontuan hartu behar dira: jateko azturak, lan baldintzak, etxebizitzaren baldintzak, aisia, bizimodua... Horregatik, emakumeen premiak, zereginak, erritmoak eta "familia kargak" direla eta, oso garrantzitsua da beren "ondoezen" zergatiak eta ondorioak identifikatzen jakitea, eta osasunari buruzko informazioa eta prestakuntza ematerakoan, genero ikuspegia kontuan hartzea.

Laudioko Osasun Zentrokoek diotenez, emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dituzte beren zerbitzuak. Laudiotarren osasuna aztertzeke orduan, sexuaren araberako estatistikak biltzeko premia antzeman da.

Emakumeen artean gaixotasun erreumatologikoak eta ginekologikoak dira ohikoenak; gizonen artean, berriz, gaixotasun urologikoak eta istripuak. Deigarria da, halaber, fibromialgiak batez ere emakumeei eragitea. Ildo horretatik, fibromialgia duten lagunek elkarte bat osatu dutela esan behar da.

8. HELBURUA:

Laudioko emakume eta gizonen osasuna eta bizi kalitatea hobetzea.



8.1. HELBURU ZEHATZA. Genero ikuspegitik, Laudioko emakume eta gizonen Osasunari eta Bizi Kalitateari dagokienez dituzten premiak ezagutzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
8.1.1.	Genero ikuspegitik Laudioko emakume eta gizonen osasuna eta bizi kalitatea aztertea, eta hobekuntza proposamenak egitea.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua Bolueta-Sagarminaga Osasun Zentroa. Bolueta-Sagarminaga Osasun Zentroa. Udalerriko emakumeen elkarteak Elkarteak eta Klubak	2007
8.1.2.	Osasuna eta Generoari buruzko lan batzordea sortzea, egindako azterketatik ondorioztatutako hobekuntza proposamenak gauzatzeko.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA	Berdintasun Zerbitzua Osasun Zentroa. Osasun Mental Zentroa. Udalerriko emakumeen elkarteak Elkarteak eta Klubak	2008, 2009



9. ARLOA: AISIA, KULTURA ETA KIROLAK

“Betidanik, kirola gizonen zenbait balio (neurketa, borroka, lehia, gorentasuna eta botere erakustaldia) islatzen dituzten praktika ludiko arautuen multzo gisa ulertu izan da. Aldiz, emakumeen kirola bizitzeko modu eta balioek garrantzia, balorazio eta ikusgaitasun gutxiago izan dute. Abiapuntuko egoera horren ondorio batzuek gaur egunera arte iraun dute, eta kirolaren gozamenari dagokionez, desberdintasun handiak daude oraindik gizonen eta emakumeen artean. Estatistikek erakusten dutenez, emakumeek kirolean duten partaidetza nabarmen handitu da, baina sexuen arteko arrailak bere horretan dirau.” (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren 2. Zirriborroa. EMAKUNDE).

Kirol praktikari dagokionez, Laudion alde handiak daude emakumeen eta gizonen partaidetzan. Emakumeek aerobica, gimnastika eta igeriketa aukeratzen dituzte gehien bat; gizonek, berriz, bestelako kirolak dituzte gogoko: muskulugintza, squasha eta kiroldegiko kantxa estalian egiten diren bestelako kirol batzuk. Gainera, emakumeek jarduera arautuak eta gidatuak aukeratzen dituzte normalean, eta gizonek kirol askeagoak, adibidez squasha edo saskibaloia.

Bestalde, diskriminazio bertikal nabarmena dago kirol erakundeetako zuzendaritza karguetan: 37 dira gizonak eta 4 besterik ez emakumeak.

9. HELBURUA:

Kirol praktikan berdintasuna bultzatzea.



9.1. HELBURU ZEHATZA. Emakumeek eta gizonek udalerriko kirol jardueretan duten partaidetza dibertsifikatzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
9.1.1.	Genero eta Kirolari buruzko ikerketa bat egitea, neska eta mutilek zein emakume eta gizonen kirolean berdintasunez parte har dezaten ekintzak antolatzeke.	Kultura, Kirolak eta Jaiak. Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa	Berdintasun Zerbitzua	2007
9.1.2.	Urtero kirol anitzeko jardunaldiak antolatzea, berdintasunezko kirol praktika bultzatzeko.	Kultura, Kirolak eta Jaiak.	Berdintasun Zerbitzua	2007, 2008, 2009
9.1.3.	Ikastetxeetara EAEko emakume kirolari famatuak joatea, kirola bultzatzeko eta ikasleek bertan behera utz ez dezaten.	Kultura, Kirolak eta Jaiak.	Berdintasun Zerbitzua Hezkuntza Zentroak	2007, 2008, 2009



9.2. HELBURU ZEHATZA. Udalerriko kirol, jai eta kultur taldeetako zuzendaritza karguetan emakumeen presentzia areagotzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
9.2.1.	Laudioko emakumeei prestakuntza ikastaroak ematea, lidergo eta zuzendaritza karguak bete ditzaten.	Enplegu eta Prestakuntza Arloa Kultura, Kirolak eta Jaiak.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua Hezkuntza Zentroak Enpresak Elkarteak eta Klubak	2008, 2009



10. ARLOA: HIRIGINTZA

Herri eta hirien plangintzak eta antolamenduak, oharkabean, gizonei egin die mesede; izan ere, gizonak betidanik lan egin dute espazio publikoan, eta azpiegitura gehienak espazio horretan eraiki dira. Ezinbestekoa da emakumeen partaidetza eta iritziak kontuan hartzea beraien hiria diseinatzeko orduan. Horregatik, emakumeek Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko epeak eta espazioen moldaketari egiten dizkieten ekarpenak oso garrantzitsuak dira.

Hiri espazioa berrantolatu egin behar da, esparru publikoa pribatuarekin uztartzeko eta herritarren premiak asetzeko, batez ere emakumeenak eta premia bereziak dituzten taldeenak. Era berean, funtsezkoa da irisgarritasunerako Legea betetzea, kaleetako, udal lokaletako zein garraio publikoko traba arkitektonikoak kentzea, mugikortasun murriztua duten pertsonen bizitzan parte hartzea eragozten badiete.

Aukera Berdintasunari buruzko diagnostikoan aipatzen den bezala, Vitoria-Gasteizerako garraio publikoa hobetu egin beharko litzateke. Irisgarritasunari dagokionez, esan behar da Larraño eta Atxarte toki bereziki helezinak direla. Azkenik, oso kale, enparantza eta eraikin gutxi daudela emakumeen izena dutenak.

10. HELBURUA:

Hirigintza eta garraioarekin loturiko proiektuetan genero ikuspegia sartzea.



10.1. HELBURU ZEHATZA. Adin guztietako emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bultzatzea, irisgarritasuna, segurtasuna, garraioa eta hiri plangintzari dagokionez herritarrek dituzten premiak aztertzerakoan.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
10.1.1.	Sexua eta adinaren arabera partaidetzaren ikerketa egitea, irisgarritasuna, segurtasuna eta garraioari dagokionez Laudioko herritarrek dituzten premiak ezagutzeko, eta hobekuntza proposamenak aurkeztea.	Hirigintza eta Ingurumen Arloa.	Berdintasun Zerbitzua	2007, 2008, 2009
10.1.2.	Hirigintza eta Ingurumen Sailak egiten dituen gainerako ikerketetan genero ikuspegia sartzea.	Hirigintza eta Ingurumen Arloa.	Berdintasun Zerbitzua Azpikontratutako Aholkularitzak	2007, 2008, 2009



10.2. HELBURU ZEHATZA. Udalerriari ekarpenak egin dizkieten emakumeen izenak jartzea kaleetan, enparantzetan, parkeetan etab.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
10.2.1.	Udalerriko bizitza sozialarentzat, ekonomikoarentzat eta politikoarentzat garrantzitsuak izan diren emakumei buruzko ikerketa historikoa egitea, eta haren emaitzak argitaratzea.	Kultura, Kirolak eta Jaiak.	Berdintasun Zerbitzua	2008
10.2.2.	Laudio/Llodioko emakume garrantzitsuen izenak jartzea eraikitzen diren kale, plaza, parke, zentro sozial eta abarri.	Hirigintza eta Ingurumen Arloa.	Kultura, Kirolak eta Jaiak. Berdintasun Zerbitzua	2008, 2009

10.3. HELBURU ZEHATZA. Emakume talde ahulenei etxebizitza lortzeko erraztasunak ematea (indarkeriaren biktimei, oinarriko errenten hartzaileei, guraso bakarreko familiei, gazteei...).

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
10.3.1	Udalak emakume talde ahulenei lehentasuna ematea alokairuko etxebizitzak eskaintzerakoan.	Hirigintza eta Ingurumen Arloa.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA Berdintasun Zerbitzua	2007, 2008, 2009



10.4. HELBURU ZEHATZA. Vitoria-Gasteizerako eta Galdakaoko Ospitalerako garraio publikoaren hobekuntza bultzatzea.

EKINTZAK.		ARLOA, SAILA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA	ARLO, SAIL EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	BURUTZEKO EPEA
10.4.1.	Lan Batzorderen bat sortzea, garraio publikoaren hobekuntza bultzatzeko emakumeen premiak kontuan izanik.	GIZARTE ONGIZATE, LANKIDETZA ETA OSASUN ARLOA Hirigintza eta Ingurumen Arloa.	Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloa. Berdintasun Zerbitzua	2008